

AIRE ZABALEKO XXI. PINTURA LEHIAKETA

San Andres Errota
2018ko ekainaren 3an, Igandea



PARTE HARTZEKO OINARRIAK

PARTE-HARTZAILEAK

Nahi duten artistek hartu ahal izango dute parte, betiere 16 urtetik gorakoak badira eta izen-ematea formalizatu badute. 400 parte hartzaile izango dira gehienez ere.

IZEN-EMATEA

Izena emateagatik eta antolatzaileek emandako oihalarengatik 7 euro ordaindu beharko dira. Zehazki, hauetan eman ahal izango da izena:

• Mankomunitatearen bulegoetan (Navas de Tolosa, 29, Iruña), 08:30etik 15:00etara, astelehenetik ostiralera. Bertan, ordainketa eskudirutan egingo da.

• www.mcp.es webgunearen bidez. Formularioa bete eta ordainketa on line egin behar da.

Izena emateko epea maiatzaren 25ean amaituko da, ostirala, baldin eta lehenago parte-hartzaileen gehieneko kopurura heltzen ez bada.

Ez da epe horretatik kanpoko izen-ematerik onartuko, ezta lehiaketaren egunean bertan ere.

EZAUGARRIAK

Egile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du, nahi duen gaiari buruzkoa eta nahi duen teknika erabilita. Lana sortzeko, nahi dituen baliabide dokumentalak eta teknikoak erabil ditzake (argazkiak, collageak, eta abar).

BALDINTZAK

Antolakuntzak emango ditu oihalak, ondoko neurrikoak izango direnak: 100 x 81 cm.

Oihalak zigilatuta emango zaizkie parte-hartzaile guztiei 10:00etatik 12:00etara, San Andres Errotan (Iruñerriko Ibai Parkea, San Andres kalea, 6, Atarrabia). Oihala izan ezik (antolakuntzak emango du), gainerako materiala parte-hartzaile bakoitzak eraman beharko du.

Obrak ekainaren 3an, igandea, egin beharko dira, 10:00etatik 16:00etara.

Antolakuntzakoek freskagarriak jarriko dituzte parte-hartzaileen eskura jardunaldi osoan, baita otordu bat ere 13:00etan. Hori guztia, lehiaketa bertan behera geratu ez bada.

SARIAK

Lehen saria 2.000 eurokoa izango da, eta bi akzesit ere emango dira, bakoitza 1.000 eurokoa. Sariak San Andres Errotan bertan emango dira, lehiaketa bukatu eta gero. Aipatutako zenbateko horiei dagokien PFEZa atxikiko zaie. Saritutako lanak eta lan horiek erreproduzitzeko eskubideak Iruñerriko Mankomunitatearenak izango dira. Irabazleen izenak eta irudiak, eta bai beren lanenak ere, hedabideetan eta Iruñeko Mankomunitatearen webgunean argitaratu ahal izango dira.

EPAIMAHAIA

Hauk osatuko dute:

- Aritz Ayesa jaunak, Iruñerriko Mankomunitateko lehendakariak.
- Fermín Tarragona jauna, Iruñerriko Mankomunitateko Batzorde Iraunkorreko kidea.
- Javier Manzanos jaunak, arte plastikoetan adituak.
- Blanca Razquin andrea, artista gonbidatua.
- Leticia Gaspar andrea, 2017ko edizioko lehiaketaren irabazlea.

Epaimahaikideren batek agertzerik ez badu, antolakuntzakoek haren ordezkoa izendatuko dute.

LEHIAKETA BERTAN BEHERA UZTEA

Baldintza meteorologikoengatik jarduera gauzatzerik ez badago, antolakuntzakoek lehiaketa bertan behera uzteko edo lehiaketa garatzeko baldintzak aldatzeko eskubidea izango dute. Izena ematean ordaindutakoa lehiaketa bertan behera geratu aurretik oihala hartu ez duten parte-hartzaileei soilik itzuliko zaie. Ordaindutakoa ekainaren 5a eta 26a artean itzuliko da, Navas de Tolosa kaleko 29. zenbakian dauden bulegoetan, 10:00etatik 15:00etara. Izen-ematea on line egin duten parte-hartzaileei transferentzia egin zuten kontu berbera itzuliko zaie ordaindutako zenbatekoa. Aldaketa guztiak megafoniaren bidez jakinaraziko dira.

ERAKUSKETA

Lehiaketa irabazi duen lana, bi akzesitak eta epaimahaiak hautatutako lanak Atarrabiako San Andres Errotako erakusketa aretoan jarriko dira ikusgai, ekainaren 5etik uztailaren 5era.

Saririk jaso ez baina erakusketan jarritako lanen egileek ez dute izango inolako ordain ekonomikorik jasotzeko eskubiderik, eta uztailaren 18tik, asteazkena, abuztuaren 17ra, ostirala, jaso beharko dituzte beren margolanak, 10:00etatik 14:30era, INTRO Comunicación enpresaren bulegoan (San Roke kalea, 1, 8. B, Iruña). Zehaztu diren egun horietan margolanak jaso ezean, ulertuko da egileek lanei uko egiten dietela. Hori dela-eta, Iruñerriko Mankomunitateak libreki erabili ahal izango ditu margolanak, erreklamazio edo kalte-ordainen inolako eskubiderik aitortu gabe.

Antolatzaileek ez dute beren gain hartuko hautatutako lanek izan litzaketen kalteen edo galeren gaineko erantzukizunik.

HELEGITEAK

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauak guztiz onartzea eta epaimahaiak erabakitakoarekin ados egotea. Epaimahaiak oinarri hauetan aurreikusten ez diren kontu guztiak ebatziko ditu.

Deialdiaren eta deialdia gauzatzeko emango diren egintzen aurka egin ahal izango da Mankomunitateko lehendakariaren aurrean, hilabeteko epean, informazioa argitaratzen edo jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita.

NOLA HELDU



●●●●● Ibilgailuz egiteko bidea

●●●●● Eibilbidea ibai parkearen pasealekutik

🌳 Ondarezko zubia

P Aparkalekua

▬▬▬▬▬ Zaldaina

Eskualdeko Hiri Garraioaren geltokiak
4 L4 Barañáin-Villava
Extensiones: Arre-Oricáin-Huarte
7 L7 Vilava-Chantrea-Barañáin